



Portugalete, 2021eko urriaren 27a

UNED Bizkaia-k eta Kutxabank-ek lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu dute, bikaintasun akademikoaren 6 sariko deialdia eta materialerako zuzkidura barne

UNED Bizkaiak eta Kutxabankek hitzarmen bat sinatu dute bi erakundeen arteko harremana indartzeko, ezagutza eta ahaleginaren kultura bultzatuz, erakunde horrek bere etapa akademikoan unibertsitateko ikasleei ematen dien laguntzarekin bat etorriz.

Hitzarmenak **6 sariko deialdia** jasotzen du, 2020-2021 ikasturtean ikasketak bikain egin dituzten ikasleak saritzeko. **4 beka** emango dira, **1.000 euroko** zuzkidurarekin **graduako ikasketetako** espediente akademiko onenei, eta **500 euroko 2 sari 25 urtetik gorakoentzako Sarbide Ikastarokoei**. Era berean, **UNED Senior** programan matrikulatutako 400dik gora pertsoneri **materiala emateko zuzkidura** ekonomiko bat ere jasotzen du. Programa hori 55 urtetik gorako pertsoneri zuzenduta dago, eta beren aurretiazko ezagutzak eguneratzea eta egungo gizartean ulermen eta parte-hartze handiagoa lortzea ahalbidetuko dien prestakuntzarekin osatzea dute helburu.

Azken batean, unibertsitateko ikasleei laguntzen jarraitzea da helburua, gazteen zein adinekoen prestakuntzan lagunduz.

Informazio gehiago:

www.unedbizkaia.es

info@portugalete.uned.es

94 493 65 33

Parque Ignacio Ellacuría, 3
48920 Portugalete
Tel: 94 493 65 33
info@portugalete.uned.es

